UNIBERTSITATERAKO SARBIDE PROBA
25 URTETIK GORAKOENTZAT



# PROBA ESPEZIFIKOA

# 2021eko PROBA

## GEOGRAFIA

PROBA

ERANTZUNAK

GEOGRAFIA

PROBAREN IRAUPENA: ORDUBETE

1.- EGIN EZAZU IRUDI HONI BURUZKO IRUZKIN BAT (2,5 PUNTU)



2.- GARATU GAI HAU (3 PUNTU).

- MESETATIK KANPOKO MENDIKATEAK.

3.- DEFINI ITZAZU KONTZEPTU HAUEK: (HAUTATU 3)
(GUZTIRA, 1,5 PUNTU)

1. Goi-lautada (meseta).
2. Arro sedimentarioa.
3. Egutera.
4. Agorraldia.
5. Baby-Booma
6. Tonboloa

4. AZALDU, LABUR, GRAFIKO HAU. (IBAI-ERREGIMENA). (3 PUNTU)



# GEOGRAFIA EBAZPENA
# (2021)

GEOGRAFIA

PROBAREN IRAUPENA: ORDUBETE

EBAZPEN ORIENTAGARRIA

1.- EGIN EZAZU IRUDI HONI BURUZKO IRUZKIN BAT (2,5 PUNTU)



*Iturria: http://compendium16.blogspot.com*

Irudian paisaia natural menditsu bat ikusten da, hiru hegalekin. Eskuinekoan, landaredi iraunkorra da nagusi; ezkerrekoan, elurra eta landaretza gero eta urriagoa nahasian ageri dira; eta hondoan, jada altuera handiagoan, landaredia desagertu da, eta elur gehiago dago. Beraz, irudian ikusten denaren arabera, eremu horri goi-mendiko klima dagokio, bere berezko landarediarekin.
Erliebea menditsua da, malda handikoa, gizakiaren esku-hartze nabarmenik gabea.

2.- GARATU GAI HAU (3 PUNTU).

- MESETATIK KANPOKO MENDIKATEAK.

Pirinioak, Mendikate Betikoak, Euskal Herriko arkua edo Eusko Mendiak eta Kataluniako kostaldeko mendikatea; guztiek jatorri bera dute, orogenesi alpetarraren eraginez sortu baitziren.

Pirinio Axiala. […]
Pirinioaurrea. […]
Mendikate Penibetikoa. […]
Mendikate Subbetikoa. […]
Sakonune Intrabetikoa. […]

Euskal Herriko arkua edo Eusko Mendiak. […]

Kostaldeko mendikatea. […]
Kostalde aurreko sakonunea. […]
Kostalde aurreko mendikatea. […]

3.- DEFINI ITZAZU KONTZEPTU HAUEK: (HAUTATU 3)
(GUZTIRA, 1,5 PUNTU)

1. Goi-lautada (meseta).

Zona uhindua edo gailur laukoa, erliebe handikoa, eskuarki malda handiko beheranzko hegalez inguratua.

2. Arro sedimentarioa.

Lurrazalaren sakonune itxia, oso malda leunak dituena.

3. Egutera.

Hegoaldera begira dagoen mendixka edo mendien hegala (Ipar hemisferioan), iparraldera begira dagoen hegalak (laiotza) baino intsolazio handiagoa jasotzen duena.

4. Agorraldia.

Urteko garai batzuetan ibai bateko urek duten gutxieneko emaria.

5. Baby-Booma.

Jaiotza-tasaren eztanda (ingelesez, baby boom); Bigarren Mundu Gerraren ondoren, 1946 eta 1964 artean, izandako fenomeno demografikoa definitzen du. Jaiotza-tasaren igoera nabarmenak ezaugarritzen du.

6. Tonboloa.

Uharte edo uhartetxo bat kostaldearekin lotzen duen istmoa edo harea- edo legar-barra.

4. AZALDU, LABUR, GRAFIKO HAU. (IBAI-ERREGIMENA). (3 PUNTU)






Elur-erregimen bat da. Ibaia elur-prezipitazioek elikatzen dute nagusiki, eta horrek esan nahi du emaria asko urritzen dela neguan, eta, urtzearen ondorioz, ur handiak isurtzen direla udaberrian edo uda-hasieran; 2.500 metroko altueratik gora, uda betean gerta daiteke urtze-aldia.

Erregimen hau goi-mendiko ibaiei dagokie; adibidez, Erdialdeko Pirinioetakoei.
[…]

GALDEKIZUNEN ETA CURRICULUMAREN ARTEKO KORRESPONDENTZIA

| GALDEKIZUNA | EDUKI-BLOKEAK |
|---|---|
| 1.a | 1. blokea |
| 2.a | 3. blokea |
| 3.a | 1.tik 5.era bitarteko blokeak |
| 4.a | 3. blokea |